

## ZUMARRAGA / Liburutegiak lau mila bazkidetik gora ditu

### Bi urte bete dira Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala martxan jarri zenetik

I. Luzuriaga

Zumarragako liburutegiak ia 4.200 bazkide ditu gaur egun. Azkenaldian kopuruak gora nabarmen egin du. Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionala Zumarragako liburutegian duela bi urte jarri zuten martxan, eta ordundik hona handiagoa izan da hazkundera. Liburutegitik egiten duten balorazioa oso positiboa da.

Jendeak ez du ordaindu behar, eta badakite bazkide txartelarekin sistema honetan dauden liburutegi guztietako zerbitzua erabil dezaketela, eta horrek irakurleak animatzen ditu, adierazi du Lourdes Alberdi liburuzainak. Gainera, jendeak gero eta gehiago ezagutzen du zerbitzua, eta ondo erabili.

### Sustapen kanpainak

Erabiltzaileari dagokionez, adin guztietako jendea sartzen da. Zentzu horretan haur eta gaztetxo asko dago. Liburutegiak irakurzaletasuna bultzatzeko egindako kanpainak eragina dutela onartzen du liburuzainak: Orain arte harrera oso ona izan dute. Gainera jarduera atseginak dira, hortaz aurten ere jarraitzeko asmoa dugu.

Dena dela, Alberdik dio horrekin ez dela nahikoa. Haur guztiek ez dute kontaktzen hemen izan direla, ahaztu egiten zaielako, adibidez. Beraz, irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenekin jarraitu behar dugu.

Momentu honetan liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuen artean ez dago bideoak edo DVDak alokairuan hartzeko modurik. Zerbitzu hori liburutegia Zelai Ariztikiko kultur etxe berrira pasatzen denean eskainiko dute. Era berean, leku aldaketa horrek, gaur egun sor daitezkeen toki arazoak konpontzeko balioko duela aurreikusi dute.